



TEATRO
ARRIAGA
ANTZOKIA

Arriaga Antzokiak bihar estreinatuko du **LOS CHICOS DEL CORO** ikuskizun arrakastatsua, Aste Nagusian eskainiko duen musikala

- Arriaga Antzokiak, mundu osoa hunkitu zuen *Les choristes* film frantses zoragarrian oinarritutako ikuskizunaren 25 emanaldi eskainiko ditu bihartik, osteguna abuztuaren 17tik, irailaren 10era arte.
- Juan Luis Iborrak zuzendutako ikuskizunak aktore talde bikaina du, Natalia Millán eta Rafa Castejón buru direla; eta, jakina, «Escuela Los Chicos del Coro» eskolako neska-mutilak eta haien ahots zoragarriak ere entzuteko aukera izango dugu.
- Madrilen 115.000 ikusle erdietsi zituen musikal arrakastatsu honek, eta 4 “Premios Teatro Musical”, 5 BroadwayWorld Spain Awards eta 4 MET Sari irabazi ostean iritsiko da Bilbora.

Bilbo, 2023ko abuztuaren 16a.- Arriaga Antzokia prest dago 2023-2024 denboraldi berriari hasiera emateko. Bihar ostegunean, abuztuaren 17an, **Los Chicos del Coro, el musical** ikuskizun handiaren estreinaldiarekin ekingo dio egitarauari, irailaren 10era arte ikusgai izango den proposamenarekin alegia. Epe horretan, 25 emanaldi eskainiko dira. Hau izango da, beraz, Aste Nagusian izango dugun ikuskizuna: oso kalitate handiko proposamena da, elementu erakargarri ugari dituena. Lehenengoa, noski, izenburua bera da, musikala *Les choristes (Abesbatzako mutilak)* filmean oinarritzen baita. Film frantses zoragarriak mundu osoa hunkitu zuen 2004an eta bi Cesar Sari jaso zituen, eta baita Oscar sarietarako, Urrezko Globoetarako, Goya sarietarako eta Bafta sarietarako izendapenak ere, beste hainbat aintzatespenen artean.

Hain ospetsua den film bat eszenatokira eramateko, aktore talde oso on bat behar da, eta Kak Group-ren eta AMR-ren ekoizpen honek badauka. Mathieu irakasle ikonikoarena eginez, **Manu Rodríguez** aktorea agertzen zaigu ikuskizun honetan, non **Natalia Millán** ezagunak, Espainiako eszenako musikalen interprete handietako bat denak, Violette Morhange hezurmamitzen duen. Horrez gain, **Rafa Castejón** aktoreak Rachin-ena egiten du, *Fond de L'Etang* barnetegiko zuzendari zorrotzarena. Gainerako aktoreak honako hauek dira: **Eva Diago**, Langlois matematika irakaslea; **Iván Clemente** Pascal Mondain-ena egiten; eta **Xisco González** Maxence gisa.

Eta, jakina, taula gainean, «Escuela Los Chicos del Coro» eskolako abesbatzako haurrak egongo dira —15 agertuko dira emanaldi bakoitzean—. Izan ere, musikalak ahotsetarako koru propioa du, Nicolás Martín Vizcaíno pianistaren eskutik sortu dena.

Hunkigarria eta oso dibertigarria

Los Chicos del Coro formatu handiko musikal bat da, edozein adineko ikusleentzat egokia den ikuskizun benetan hunkigarri eta dibertigarria. Emanaldietan entusiasmoak

gainezka egiten du eta, aldi berean, eszenatokitik sentiberatasuna eta ongi zaindutako xehetasunak transmititzen dira. *Los Chicos del Coro* ikuskizun oso gizatiarra da, maitasuna dario, baina baita umorea ere, oso dibertigarria baita.

Los chicos del Coro, el musical ez da guztiok gogoko dugun film baten egokitzapen hutsa. Aldi berean, apustua egiten du, hazkunde pertsonalerako musikaren eta artearen beharraz hitz egitearen aldekoa. Musika eta antzerkia uztartuz, obra honek haur ahaztuei buruz hitz egiten du, baina baita inozentziari, jolasari eta maitasunari buruz ere. Ahaleginaz hitz egiten du, elkartasunaz, lanaz eta ilusioaz... Bizitzaz hitz egiten du, eta arteaz, benetan gizaki egiten gaituen horri buruz.

Musikalaren eszena zuzendaria da **Juan Luis Iborra** da eta **Rodrigo Álvarez** musika zuzendaria. Ikuskizuneko eszenografia **David Pizarro**ren ardura da, **Juanjo Llorens** da argiztapen diseinatzailea, eta soinu diseinatzailea **Javier G. Isequilla**.

Sinopsia

1949an, Clement Mathieu ordezeko irakaslea “Fond de L'Etang” barnetegira iritsi zen, han, Rachin zuzendariak musikarako tokirik uzten ez zuen erregimen gogor eta zorrotza ezarrita zuen. Mathieuk, zorterik izan ez duen konpositore ohiak, arauak urratzen ditu Bigarren Mundu Gerraren zakartasunean hezitako gazteei munduaren edertasuna ezagutzera emateko.

Planteamendu horrekin, bere haurtzaroan bertan eta Frantziako zinemaren klasiko zahar batean inspiratuta, Christophe Barratierrek XXI. mende hasierako film ahaztezinetako bat sortu zuen, Bruno Coulais-en musika bikainarekin jositakoa.

Luze irauten duen arrakasta

Hasieran, film gisa eta, orain, musikal bezala, *Abesbatzako mutilak* obrako istorioa indarrean dago erabat. 2004ko filmak nazioarteko aintzatespena lortu zuen eta hainbat sari jaso zituen, horien artean bi Cesar sari dira azpimarratzekoak, eta munduko sari ospetsuenetarako izendatuta egon zen: Oscar sariak, Urrezko Globoak, Goya sariak eta Bafta sariak, besteak beste. Baina, horrez gain, film batek lor dezakeen gauzarik zailena lortu duela esan genezake, denboraren iragateari garaitzea eta memoria kolektiboan irautea. Zalantzarik gabe, horrek azaltzen du, hein batean, *Los chicos del Coro* musikalaren arrakasta. Frantziako produkzioarekin arrakasta handia izan zuen Parisen hainbat denboralditan eta, ondoren, bira bat egin zuen Frantzian eta gero nazioartean, Espainiako hainbat hiritatik ere igaroz.

Orain, Kak Group ekoiztetxeak esperientzia paregabe hori eskaintzeko eskubideak eskuratu ondoren egin duen apustuaren emaitza da Madrilen lortutako arrakastaren bermearekin Bilbora iritsiko den muntaia. 115.000 pertsona baino gehiago joan dira *Los chicos del Coro, el musical* musikalaren emanaldietara, eta liluratuta atera dira.

Eta, hori gutxi balitz, Madrilgo egonaldiak ere aintzatespenak ekarri dizkio. *Los Chicos del Coro, el musical* lanak **4 sari** irabazi zituen joan den ekainean “**Premios Teatro Musical**” izeneko sarietan. Juan Luis Iborrak Eszena Zuzendaritza Onenaren Saria jaso zuen; Rafa Castejónnek Bigarren Mailako Aktore Onenaren saria jaso zuen, eta antzezlanaren Argiztapen-Diseinua eta Soinu-Diseinua Javier Isequillari eta Juanjo Llorensi emandako bi sarirekin aitortu zituzten, hurrenez hurren.

Gainera, abuztuko hilabete honetan bertan **BroadwayWorld Spain Awards** sariak eman dituzte eta *Los chicos del Coro* musikalak **5 sari** jaso ditu, ondoko hauek: Zuzendari Onena Juan Luis Iborrarentzat; Emakumezko Aktore Onenarena Natalia Millánentzat; Egokitzapen Onena Pedro Villorari; Soinu Onena Javier G. Isequillarentzat, eta Abesbatza Talde Onena Los chicos del Cororentzat.

Ezin ahaztu, halaber, *Los Chicos del Coro, el musical* obrak **4 MET (Madrid Es Teatro) 2022 sari** ere jaso zituela: 2022ko Musikal Onena, Antzeztaldeko Aktore Onena, Rafa Castejónentzat; Argiztapen Diseinu Onena, Juanjo Llorensentzat; eta Eszenografia Diseinu Onena, David Pizarroentzat.

Los chicos del Coro, el musical

Antzezleak:
Natalia Millán
Rafa Castejón
Eva Diago
Iván Clemente
Manu Rodríguez
Xisco González

Abesbatza: **Los chicos del Coro**

Testua: **Christophe Barratier, Philippe Lopes Curval**
Musika: **Bruno Coulais, Christophe Barratier**
Abestien letrak: **Christophe Barratier, Philippe Lopes Curval**
Zuzendaria: **Juan Luis Iborra**
Itzulpena eta egokitzapena: **Pedro Víllora**
Musika zuzendaria: **Rodrigo Álvarez**
Eszenografiaren diseinua: **David Pizarro**
Argiztapenaren diseinua: **Juanjo Llorens**
Soinuaren diseinua: **Javier G. Isequilla**
Karakterizazioaren diseinua: **Silvia Lebrón-Rojas**
Koreografia: **Xenia Sevillano**
Eszenako jostuna eta jantzien mantentze-lanak: **Macarena Casis**
Ile-apainketa: **Laura G. Casablanca**
Musika-moldaketak: **Rodrigo Álvarez, Nicolás Martín Vizcaíno, Luz Fernández**

Produkzio exekutiboa: **Rafa Coto**
Casting zuzendaria: **Beatriz Giraldo**
Zuzendaritza laguntzailea: **Alejandro Baras**
Produkzio zuzendaria: **Víctor Aranda**
Ekoizpen laguntzaileak: **Carlos Díaz, Javier Castellano**

ESCUELA LOS CHICOS DEL CORO

Escuela Los Chicos del Coro-ko koordinatzailea: **Rodrigo Álvarez**
Kantu-irakasleak: **Claudia Corral, Marga Mateu, Rodrigo Álvarez**
Mugimendu irakaslea: **Xenia Sevillano**
Ekoizpena: **Kak Group eta AMR**
Banaketa: **Pentación Espectáculos**

Informazio gehiago:
Komunikazioa - ARRIAGA ANTZOKIA
Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307
comunicacion@teatroarriaga.eus
www.teatroarriaga.eus

ARRIAGA ANTZOKIA - Emanaldien egutegia

ABUZTUA

OSTEGUNA	17	19:30	ESTREINALDI OFIZIALA
OSTIRALA	18	19:30	
IGANDEA	20	19:00	
ASTEARTEA	22	19:30	
ASTEAZKENA	23	19:30	
OSTEGUNA	24	19:30	
OSTIRALA	25	17:00 eta 20:00	
LARUNBATA	26	17:00 eta 20:00	
IGANDEA	27	19:00	
ASTEARTEA	29	19:30	
ASTEAZKENA	30	19:30	
OSTEGUNA	31	19:30	

IRAILA

OSTIRALA	1	19:30	
LARUNBATA	2	17:00 eta 20:00	
IGANDEA	3	19:00	
ASTEARTEA	5	19:30	
ASTEAZKENA	6	19:30	
OSTEGUNA	7	19:30	
OSTIRALA	8	19:30	
LARUNBATA	9	17:00 eta 20:00	
IGANDEA	10	17:00	